

Cikautxoko Hizkuntza politika

Cikautxo 1971n sortu zen, Berriatuan, hogeiko gazte talde batek Lea-Artibai eskualdean lana sortzeko zuen gogoaren ondorioz; hain zuzen ere, euskara hizkuntza nagusi den eskualde batean.

Cikautxoren proiektua gure bezeroen beharrei erantzutearen ondorioz garatuz eta bilakaturaz joan da. Horren ondorioz, hainbat merkatuetara zabaldu da, eta nazioartekotu egin du bere jarduerak. Horrela, inguru globalizatu honetan, lantegi berriak ireki ditu Berriatuatik kanpo. Horrek guztiak hasiera-hasierako egoera aldatu du eta, hizkuntza aniztasuna ekarri du Cikautxo Taldera. Aberasgarria bada ere, egoera horrek lantegien arteko komunikazio-arazoak sortzen ditu.

Horregatik, eta aurre-azterketa baten ondoren, egoerari heldu nahi izan diogu, lantegien arteko komunikazioa bateratzeko eta, horrela, gure harremanak hobetzeko.

Prozesu horretan, Cikautxok Berriatuko plantan 2002 urtetik garatzen diharduen euskararen normalizazio-lana ere kontutan hartu da.

Beraz, Cikautxoren Kontseilu Erretoreak, 2013ko urrian, jarraian zehaztuko den “Cikautxo Taldearen Hizkuntza Politika Orokorra” onartu zuen, honako helburu honekin: hizkuntza desberdinak erabiltzeko oinarritzko arautegia ezartzea.

Hizkuntza Politika Orokorren helburua honakoa da: Cikautxo Taldean hizkuntzen erabilera zehaztea eta arautzea.

Zehaztapen eta arautze hori honako irizpide hauetan oinarrituko da:

- Cikautxo Taldeko enpresen arteko jardueren koordinazioa eta lantaldeetako lankideen arteko harremanak erraztea ahalbidetuko duen hizkuntza komuna ezartzea.
- Ikuspegi globala izango duen “Taldearen” ideari laguntzea, baita prozesu komunei eta nazioarteko lantaldeei ere.
- Cikautxo osatzen duten pertsonen Talde bakar baten “partaide izatearen zentzua” izatea.
- Taldean aritzeko behar diren hizkuntzen ezagutza bermatzea.
- Lantegi bakoitzean bertako hizkuntzaren erabilera bermatzea, lantegien arteko komunikazio-prozesuak eta bertan diharduten pertsonen interesak erraztuz.
- Gure Printzipioek eta Estrategiek euskarari eskaintzen dioten garrantzia ematea, bai Berriatuko lantegian bai bere eragin-eremuan kokatuta dauden lantegietan.
 - Ingelesa, gaur egun nazioarteko hizkuntza estandartzat hartua dena, taldearen lan-hizkuntza izango da. Beraz, Cikautxon sartzeko baldintza izango da lanpostuaren deskribapenean adierazitako maila minimoa frogatzea. Maila hori lanpostu bakoitzaren deskribapenak jasoko du.
 - Cikautxok bitartekoak jarriko ditu, taldearen barruan harremana izateko eskatutako maila lor dadin.
 - Bertako hizkuntzak Cikautxoren lantegi guztietan izango du presentzia ingelesaren maila berean. Bitartekoak jartzen saiatuko gara, lekuz aldatutako pertsonen bertako hizkuntzaren ezagutza egokia izan dezaten, bai maila profesionalean, bai maila pertsonalean.
 - Berriatuan euskarak, bertako hizkuntza izanik, lehentasunezko tratamendua izango du, gaztelaniaren aurrean. Cikautxora sartzeko diren pertsonekin bazkidetza finkatzeko erabakia hartzeko oso garrantzitsua izango da lanpostu bakoitzerako zehaztu den euskararen ezagutza-maila izatea.
 - Hainbat plantetako pertsonen osatutako Batzordeen edota Lantaldeen bilerak ingelesez izango dira, baita aktak eta horien jarraipena.
 - Lekuz aldatutako pertsonak baldin badaude, Kanpoko lantegien Zuzendaritza Batzordeen bilerak ingelesez izango dira, bestela eta bertako hizkuntzan egingo dira. Aktak eta horien segimendua ingelesez egingo dira, Taldearen koordinaziorako elementuak direlako.



Zuzendari Nagusia



Lehendakaria